

LAGUNTZEN KATALOGOA 2017

HEMEN GAUDE ZURE
PROIEKTUARI LAGUNTZEKO

ENPRESA-GARAPENERAKO
EUSKAL AGENTZIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN
ETA AZPIEGITURA SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS

GRUPO
spri
TALDEA



AURKIBIDEA

1. TEKNOLOGIA eta BERRIKUNTZA

a. TEKNOLOGIA

Hazitek
Elkartek
Emaitek +
Kalifikazio Txostenak Ondorio Fiskaletarako
Finantza-laguntzak

b. INFORMAZIO GIZARTEA

Industria Digitala
Basque Industry 4.0
Mikroenpresa Digitala

c. BERRIKUNTZA

Innobideak Lehiabide
Innobideak Kudeabide
Innobideak Pertsonak
Innobideak Prestakuntza

2. EKINTZAILETZA

Ekintzaile
Basque fondo

3. FINANTZAKETA

Gauzatu Industria
Gauzatu kanpo ezarpenak
Renove Makineria

4. NAZIOARTEKOTZEA

Nazioartekotze zerbitzuak

5. EUSKADIKO ARRISKU KAPITALAREN SOZIJETATEA

6. AZPIEGITURAK



HELBURUA

Ikerkuntza industrialeko edo garapen esperimentaleko proiektuak bultzatzea. Proiektu horiek lehiakorrik nahiz estrategikoak izan daitezke, eta EAEko enpresa-sektorean eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskadi 2020 Planean jasotako espezializazio-esparruetan gauzatzekoak dira.



NORI ZUZENDUA

Euskal enpresa sareari.



LAGUNTZAREN AZALPENA

A.- Lehiakortasun proiektuetarako (urtekoak).

- Produktu berriak edo oinarri zientifiko eta teknologikoko enpresa berriak garatzea.
- Proiektuak indibidualki edo lankidetzan garatu daitezke.
- Urteko gutxieneko aurrekontua: 100.000 €; lankidetzan eginiko proiektuen kasuan, 50.000 € enpresako.
- Diru-laguntza: diruz lagundu daitezkeen kostuen %25eraino.
- Diru-laguntza ez itzulgarriaren gehienezko zenbatekoa: 250.000 € urteko eta onuradun bakoitzeko.

B.- Proiektu estrategikoetarako (urte anitzekoak, gehienez 3 urte).

- I+G-ko proiektu estrategikoak, ZTPB 2020 planeko espezializazio arloetakoak.
- Trakzio indarra duten proiektuak, lankidetzan edo bakarka eginak. Gutxieneko inbertsioa: 4 milioi euro.
- Diru-laguntza: diruz lagundu daitezkeen kostuen %40raino ikerketa industrialeko proiektuentzat.
- Diru-laguntza: diruz lagundu daitezkeen kostuen %25eraino garapen esperimentaleko proiektuentzat.



ESKAKIZUNAK

Laguntzen pizgarri efektua bermatzeko, laguntza eskaeraren aurkezpen-dataren ondoren hasten diren proiektuek bakarrik jaso ahal izango dituzte laguntzak.
Tramitazio elektronikoa erakundearen lege arduradunaren ziurtagiri digitalarekin.



HELBURUA

Laguntzak ematea oinarrizko ikerkuntzako lankidetzaproiektuetarako eta industriarako potentzial handia dutenetarako (ZTBESeko agenteek gauzatuak), ZTBP 2020 eta Espezializazio Adimenduneko RIS3 Estrategiaren barruko eremuetan.



NORI ZUZENDUA

ZTBESeko agenteei.



LAGUNTZAREN AZALPENA

Oinarrizko ikerkuntzako lankidetzaproiektuak. ZTBESeko agenteekin lankidetzan garatutako oinarrizko ikerkuntzako proiektuak, zeintzuen helburua baita ezagutzak zabaltzea ZTBP 2020ko eta RIS3ko lehentasunezko eremuetan. Gutxieneko guztizko aurrekontua: 500.000 € proiektuko eta 50.000 € erakunde parte-hartzaileko. Iraupena: 2 urterainokoa.

Industriarako potentzial handiko ikerkuntzaproiektuak. Oinarrizko ikerkuntza orientatuko proiektuak edo ikerketa industrialekoak, ZTBESeko enpresetako I+G unitateek zuzenduak, eta merkatua erakartzeko eta hara iristeko indar handia dutenak. Gutxieneko guztizko aurrekontua: 100.000 € proiektuko eta 50.000 € erakunde parte-hartzaileko. Iraupena: 2 urterainokoa.

Interes bereziko ekintza osagarriak. Eskaintza-eskariko bitartekaritza-organismoek eta hedapen-organismoek eskusiboki garatutako eskaintza eta eskari teknologikoaren arteko bitartekaritza-proiektuak, tartean, hauek: prospekzio azterketak eta zaintza teknologikoa egitea, lankidetzaren sustatzeko jarduerak gauzatzeko, I+G+Bren transferentzia kudeatzeko jarduerak garatzea edota I+G+B nazioartekotzeko jardueretan parte-hartzea. Iraupena: 2 urterainokoa.



ESKAKIZUNAK

Laguntzen pizgarri efektua bermatzeko, laguntza eskaeraren aurkezpen-dataren ondoren hasten diren proiektuek bakarrik jaso ahal izango dituzte laguntzak.
Tramitazio elektronikoa erakundearen lege arduradunaren ziurtagiri digitalarekin.

1 | TEKNOLOGIA eta BERRIKUNTZA Emaitek+

EPEA:
Argitaratzeko



HELBURUA

Teknologi zentroyen eta ikerkuntza kooperatiboko zentroyen (CIC) emaitzak eta gaitasunak hobetzea eta merkatura bideratzea, I+G+B-ren balio-kate osoan lan eginez.



NORI ZUZENDUA

Teknologi zentroyei eta ikerkuntza kooperatiboko zentroyei (CIC).



LAGUNTZAREN AZALPENA

Laguntzen helburua da Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko Teknologia zentroyen eta Ikerkuntza kooperatiboko zentroyen (CIC) jarduera ez-ekonomikoa bultzatzea. Horretarako, beren jarduera globalaren emaitzak ebaluatu eta aztertuko dira, eta horren araberako finantzaketa emango zaie.



LAGUNTZA MOTA

Onuradunak deialdiko urte naturalean garatutako jarduera ez-ekonomikoaren guztizko kostua estaltzeko adinako diru-laguntza (%100).

1 | TEKNOLOGIA eta BERRIKUNTZA

Kalifikazio Txosten Teknikoak Ondorio Fiskaletarako

EPEA:
2017ko urtarrila – 2017ko
abendua



HELBURUA

Ondorio Fiskaletarako Kalifikazio Txosten Teknikoak egitea.



NORI ZUZENDUA

Enpresa guztiei.



LAGUNTZAREN AZALPENA

Enpresek aurkeztutako I+G-ko jarduera proiektuak ebaluatzeko eta, ebaluazioa positiboa bada, Ondorio Fiskaletarako Kalifikazio Txosten Teknikoa egiteko zerbitzua.

Euskal enpresetan ikerketa eta garapen jarduerak akuilatu, bultzatu eta sustatzea da ebaluazio teknikoaren eta ondorengo txostenaren helburua, segurtasun juridiko handiagoa emanez Sozietateen gaineko Zergari aplikatu dakizkiokeen kenkari fiskalei. Zerbitzua doakoa da, urterokoa, eta loteslea Foru Aldundientzat.



LAGUNTZA MOTA

Enpresen I+G-ko jardueren kalifikazioa, zeinaren bidez kenkariak lortuko baitira Sozietateen gaineko Zergan.



ESKAKIZUNAK

Enpresek eginiko ikerkuntza eta garapen proiektuak.

HAZITEK programan proiekturen bat aurkeztu duten enpresek zuzenean jasoko dute txostena, berriro dokumentatu beharrik gabe.



HELBURUA

I+G+B-ko proiektuak, energia eraginkortasuneko edo energia garbien arloko neurriak hartzea eta inbertsio zientifiko-teknologikoak egitea.

Arriskua finantzatzea, bermeak emanaz Finantzen Euskal Institutuarekin (FEI) eta parte hartzen duten Finantza Erakundeekin formalizatu beharreko mailegu operazioentzat, sinatutako Lankidetzaz Hitzarmenaren barruan.



NORI ZUZENDUA

ZTBESeko enpresei eta agenteei (Teknologi Zentroak, CIC zentroak eta Enpresetako I+G-ko Unitateak).



LAGUNTZAREN AZALPENA

I+G+B-ko proiektuak. Oinarrizko ikerketako, ikerketa industrialeko edo garapen esperimentaleko ekintzak, aukera emango dutenak jauzi teknologiko esanguratsua egiteko eta potentziala dutenak inpaktu ekonomikoa izateko.

Energia eraginkortasuneko neurriak. Energia eraginkortasunaren arloan maila handiagoa lortzeko, energia berriztagarri bat aukeratzeko edo fuel- nahiz ikatz-ekipoak ordezkatzeko behar diren inbertsioak.

Azpiegitura zientifiko-teknikoak. Eskatzailearen I+G+B-ri eta jarduera-ildoei egokitutako ekipamendu zientifiko-tekniko berritzailea erostea eta instalatzea.



ESKAKIZUNAK

Laguntzen pizgarri efektua bermatzeko, laguntza eskaeraren aurkezpen-dataren ondoren hasten diren proiektuek bakarrik jaso ahal izango dituzte laguntzak.

EAEn edukitzea jarduera-zentroa eta finantzatutako inbertsioak. Gutxienez 5 urtez mantentzea, 3 urtez ETEen kasuan.

Inbertsio osoaren %25 gutxienez erakunde eskatzailearen funts propioekin estali beharko da. Maileguak: gutxienez 250.000 € eta gehienez 5.000.000 € inbertsio-proiektuko, edo guztizko inbertsioaren %75.

1 | TEKNOLOGIA eta BERRIKUNTZA Industria Digitala

EPEA :
Argitaratzeko –
2017/09/22



HELBURUA

EIKTak sartzen laguntzea manufaktura sektoreko ETEetan.



NORI ZUZENDUA

Manufaktura sektoreko ETE industrialei.



LAGUNTZAREN AZALPENA

Manufaktura sektoreko ETE industrialetan EIKTak txertatzeko proiektuak arlo hauetan garatuko dira: hornikuntza-katea, informazioa, bezeroarekiko harremanak, produktuaren bizi-zikloa, produkzio prozesuaren kontrola, datuak atzematea fabrian bertan, prebentziozko mantenimendua, logistika, produktuarekin eta prozesuarekin lotutako sentsoreak, e.a.



LAGUNTZA MOTA

Gastu hautagarrien (aholkularitza, ingeniari-tza, hardwarea eta softwarea) gaineko diru-laguntza:

- Mikro-enpresak eta Enpresa txikiak, %50.
- Enpresa ertainak, %30.

Proiektu batek gehienez 18.000 €ko diru-laguntza jaso ahal izango du urtean.

Mugak: hardwarea (4.500 €), softwarea (4.500 €), aholkularitza gastuak (18.000 €), ekitaldi osoan zehar diruz lagundu daitekeen ekintza bat edo gehiago egiteko.



ESKAKIZUNAK

EAEEn kokatutako manufaktura sektoreko ETE industrialak izango dira onuradunak. Programa 2017ko apirilean argitaratuko da, 2017/01/01erako atzeraeraginkortasuna aplikatuko delarik lehen bi hilabeteetan.

1 | TEKNOLOGIA eta BERRIKUNTZA

Basque Industry 4.0

EPEA :
Argitaratzeko – 2017ko ekaina



HELBURUA

Laguntza ematea Ikerketa Industrialeko eta Garapen Esperimentaleko proiektuei, zeintzuek hornitzaile teknologikoetatik enpresa industrialetaranzko teknologia transferentzia landuko baitute Fabrikazio Aurreratuari aplikatutako EIKTen esparruan, baldin eta demostrazio efektua badute, eta EIKTen arloko I+G-ko proiektuen emaitzak merkatura azkarrago iristea ahalbidetzen badute.



NORI ZUZENDUA

Manufaktura sektoreko enpresa industrialei (bakarkako edo lankidetzako proiektuak).



LAGUNTZAREN AZALPENA

Proiektuek arlo hauetakoren batekin lotuta egon behar dute, fabrikazio aurreratuari aplikaturiko CPS (Cyber Physical Systems) sistemen arloan: Ziber-segurtasuna eta komunikazio industrialak – Cloud Computinga – Big Data- analitika aurreratua eta Business Intelligence – Robotika Kolaboratiboa – Errealitate handitua – Ikusmen artifiziala – Sentsorika – Diseinua eta Gehikuntza bidezko Fabrikazioa material metaliko eta aurreratuetan (zeramikak, compositeak, e.a.).



LAGUNTZA MOTA

Laguntzaren intentsitatea: onartutako gastu eta inbertsio hautagarrien %25 + %15 gehiago, baldin eta proiektuaren bidez lankidetzako efektiboa garatzen bada enpresa baten eta ikerkuntzako eta ezagutzak hedatzeko organismo baten (edo bat baino gehiagoren) artean. Diru-laguntza gehienez 150.000 €koa izango da proiektuko.

Diruz lagundu daitezkeen gastu eta inbertsioak:

- “I+G-ko agentearen” ordu-dedikazioaren gastuak, horren barnean sartuz fabrikari ematen den laguntza eta aholkularitza.
- “Inplantariaren” ordu-dedikazio gastuak (aholkularitza eta ingeniariaren enpresak).
- ZTBESeko eragileak eskainiriko jabetza industrialak eskuratzeko gastuak.
- Hardwareko eta softwareko inbertsioak eta/edo gastuak.
- Enpresa onuradunaren barneko langileen gastuak, diruz lagundutako proiektuari egoztekoak direnak.

Enpresa batek gehienez 150.000 €ko diru-laguntza jaso ahal izango du urtean.



ESKAKIZUNAK

Proiektuek TRL 5 eta TRL 9 mailen artekoak izan behar dute.
Proiektuen gutxienezko aurrekontua: 75.000 €.

1 | TEKNOLOGIA eta BERRIKUNTZA

Mikroenpresa Digitala – Prestakuntza eta Inplantariak

EPEA:
2017ko urtarrila – 2017ko
abendua



HELBURUA

Aholkularitza teknologikoko zerbitzuak ematea (INPLANTARIAK) aplikazio informatikoak erabiltzeko negozioa kudeatzean eta sustatzean.

Mikroenpresentzako prestakuntza zerbitzua, beren lehiakortasuna hobetu dezaten; horretarako, 2 orduko ikastaroak (PRESTAKUNTZA) emango zaizkie informazio teknologiak erabiltzen ikasteko



NORI ZUZENDUA

Mikro-enpresei eta autonomoei.



LAGUNTZAREN AZALPENA

Ekimenak bi jarduera-ildo ditu:

- IKT konponbideak ezartzea autonomo eta mikro-enpresentzat: ekimen honek aholkularitza ematen die horrelako kolektiboek, beren negozioarentzat egokienak diren IKT tresnak aukeratu eta txerta ditzaten; gehienak estandarrak eta doakoak dira eta [IKT Konponbideen Katalogoa](#) (SPRIren webgunea) aurki daitezke.
- Hedapen- eta sentsibilizazio-lana autonomo eta mikro-enpresen negozioak hobetuko dituzten tresna digitalak erabiltzeko: bi orduko iraupena duten ikastaroak eskaintzen dira KZGunea zentroyen sarean, prestakuntza jasotzeko eta teknologia berriak norbere negozioan txertatzeko. [Ikastaroen Katalogoa](#).



LAGUNTZA MOTA

- Inplantari-Aholkulari digital@ batek dohainik ezartzea IKT konponbideak.
- IKTei buruzko prestakuntza-ikastaroak, 2 ordukoak eta KZGunea zentroyen sarean ematen direnak.

1 | TEKNOLOGIA eta BERRIKUNTZA

Lehiabide- Innobideak

EPEA :
Argitaratzeko –
2017/09/28



HELBURUA

1. Produktu, zerbitzu edota merkatuko dibertsifikazio-estrategiak definitzeko eta planifikatzeko balio duten eta erakunde onuradunen lehiakortasun posizionamendua nabarmen hobetzen duten banakako nahiz lankidetzako proiektuentzako laguntzak.
2. Enpresari dimentsio handiagoa emango dioten operazioak definitzea, planifikatzea, aztertzea eta diseinatzea.



NORI ZUZENDUA

Jarduera hauetako bat egiten duten enpresei: industria, erauzketa edota eraldaketa, ekoizpena, produkzio prozesuari lotutako zerbitzuak (aurrekoekin lotura dutenak) eta informazio- eta komunikazio-gizartearen arloekin lotutakoak



LAGUNTZAREN AZALPENA

Dibertsifikazio-estrategiak definitzeko eta planifikatzeko proiektuak, honako hauek ahalbidetzen dituztenak:

- Sarpin-maila handitzea egungo merkatuetan.
- Merkatu berriak garatzea.
- Produktu eta zerbitzu berriak diseinatzea edo lehendik daudenak nabarmen hobetzea.
- Barnekintzailtzari laguntzeko sistema bat definitu eta garatzea, negozio unitate berriak edo enpresa berriak sortzeko.
- Enpresari dimentsio handiagoa emango dioten operazioak aztertzea eta diseinatzea.



LAGUNTZA MOTA

Proiektu individualak: proiektuko gastu hautagarrien %50. Gehienez 45.000 € enpresako.

Lankidetzan egindako proiektuak: gastu hautagarrien %60, gehienez 35.000 € enpresako eta 100.000 € proiektuko. Sektore-, enpresa- edo lurralde-mailako agente baten laguntza duten lankidetzako proiektuetan, gehienez 10.000 € finantzatu ahal izango dira kontzeptu horregatik.



ESKAKIZUNAK

Bakarkako proiektuak: gutxienez 10 lanpostu dituzten enpresak.

Lankidetzan egindako proiektuak: gutxienez 5 lanpostu dituzten enpresak. Enpresa parte-hartzaileek gutxienez 20 lanpostu izan behar dituzte guztira.

1 | TEKNOLOGIA eta BERRIKUNTZA

Kudeabide- Innobideak

EPEA :
Argitaratzeko –
2017/09/28



HELBURUA

Euskal enpresen lehiakortasuna hobetzea, kudeaketa aurreratuaren metodologiak, tresnak eta printzipioak aplikatzen eta ezartzen lagunduz, hasierako kontraste baten bidez, eta proiektu pilotuak eta/edo finkatze-proiektuak garatuz.



NORI ZUZENDUA

Jarduera hauetako bat egiten duten enpresei: industria, erauzketa edota eraldaketa, ekoizpena, produkzio prozesuari lotutako zerbitzuak (aurrekoekin lotura dutenak) eta informazio- eta komunikazio-gizartearen arloekin lotutakoak.



LAGUNTZAREN AZALPENA

Hasierako kontrastea: Enpresak Kudeaketa Aurreratuko Ereduarekiko posizionamendu-kontraste bat egingo du EUSKALITen laguntzarekin.

Proiektu pilotua: Kudeaketa Aurreratuko metodologiak praktikan jartzeko proiektuak, gaikuntza jaso ondoren.

Sendotze proiektuak: Ezarpen proiektuak eta Kudeaketa Aurreratuko metodoak eta tresnak barneratzeko proiektuak.



LAGUNTZA MOTA

Hasierako kontrastea: dohainik.

Proiektu pilotua: Moduluen %60-70 bitarteko diru-laguntza.

Sendotze proiektuak: Kanpoko aholkularitza kostuen %60ko diru-laguntza. Mugak:

- Gehienez 6.000€ 5-49 langile bitarteko enpresentzat.
- Gehienez 25.000€ 50 langile edo gehiagoko enpresentzat.

Programa hau Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiekin batera eta EUSKALITen laguntzarekin garatzen da.



ESKAKIZUNAK

Gutxienez 5 lanpostu dituzten enpresak (SPRIk arreta emango die gutxienez 50 lanpostu dituzten enpresei, eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek, berriz, 5-49 lanpostu bitartekoei).

1 | TEKNOLOGIA eta BERRIKUNTZA

Pertsonak- Innobideak

EPEA :
Argitaratzeko –
2017/09/28



HELBURUA

Lehiakortasuna hobetzea, langileak enpresaren kudeaketan, emaitzetan edota jabetzan parte hartzera zuzendutako ekintzen bitartez.



NORI ZUZENDUA

Jarduera hauetako bat egiten duten enpresei: industria, erauzketa edota eraldaketa, ekoizpena, produkzio prozesuari lotutako zerbitzuak (aurrekoekin lotura dutenak) eta informazio- eta komunikazio-gizartearen arloekin lotutakoak.



LAGUNTZAREN AZALPENA

- Enpresako langileen parte-hartzea sustatzeko ekintzak, hiru elementu hauek barne hartzen dituztenak: Hasierako diagnostikoa, Parte-hartze Planaren diseinua eta Parte-hartze Planaren Ezarpenerako Laguntza.
- Enpresako langileen Parte-hartzea sustatzeko Planak ezartzeko laguntza bakarrik barne hartzen duten ekintzak.



LAGUNTZA MOTA

- Hasierako diagnostikoa + Parte-hartze planaren diseinua + Ezarpenerako laguntzak: Proiektuaren gastu hautagarrien %50eraino, eta gehienez ere 60.000 euroko diru-laguntza.
- Parte-hartze Planak ezartzeko laguntza: Proiektuaren gastu hautagarrien %50eraino, eta gehienez ere 30.000 euroko diru-laguntza.



ESKAKIZUNAK

Gutxienez 10 lanpostuko enpresak.

1 | TEKNOLOGIA eta BERRIKUNTZA Prestakuntza- Innobideak

EPEA:
2017ko urtarrila – 2017ko
abendua



HELBURUA

Euskal enpresetako zuzendaritza taldeetako pertsoneri ezagutzera ematea Kudeaketa Aurreratuaren funtsezko elementuak eta negozio ereduaren balio proposamenak eta berrikuntza hobetzeko giltzarriak.



NORI ZUZENDUA

Jarduera hauetako bat egiten duten enpresetako zuzendaritza taldeetako kideei: industria, erazketa edota eraldaketa, ekoizpena, produkzio prozesuari lotutako zerbitzuak (aurrekoekin lotura dutenak) eta informazio- eta komunikazio-gizartearen arloekin lotutakoak.



LAGUNTZAREN AZALPENA

Gai hauei buruzko prestakuntza-saio independenteak:

- Estrategia.
- Bezeroak.
- Pertsonak.
- Gizartea.
- Berrikuntza.
- Emaitzak.
- Negozio ereduak.
- Jabetza intelektuala/industrialia.



LAGUNTZA MOTA

Doako prestakuntza saioak.



ESKAKIZUNAK

EAEEn kokatutako enpresaren bateko zuzendaritza taldeko kide izatea.

2 | EKINTZAILETZA Ekintzaile

EPEA:
2017ko urtarrila – 2017ko abendua



HELBURUA

Enpresa-ideaia bati heltzen laguntzea Enpresa eta Berrikuntza Zentro batean. Ideia hori enpresa bihurtuko balitz, mailegu abantailatsuak eskuratuko lituzke.



NORI ZUZENDUA

Pertsona fisikoei, mikro-enpresei, ETEei eta enpresa industrial handiei edo haiekin lotutako zerbitzu enpresei.



LAGUNTZAREN AZALPENA

1. laguntza:

Industria sektoreko edo zerbitzuetako enpresa-ideaia berritzaile edo teknologiko bati umotzen laguntzea gehienez 18 hilabetez.

2. laguntza:

Ideia negozio-plan bideragarri batekin amaitzen bada eta enpresa berri bat (ETE) sortzen bada, LUZARO funtseko finantzaketa eskuratu ahal izango du, beranduenera eskaera egin aurreko urtean.



LAGUNTZA MOTA

Gehienez 30.000 euroko fondo galdurako diru-laguntza eta diruz lagundu daitezkeen gastuen %100eraino.

Inbertsioak egiteko maileguak, gehienez 36 hilabeteokoa, aktibo finko berriak erosteko (eraikuntzak salbu), baldin eta 3 urtetan gutxienez 3 enplegu sortzen badira.



BALDINTZAK

Aktibo finko berrien %70erainoko gehienezko laguntza, sustatzaile berriak egin beharko duen inbertsioaren %30 ordaindutako kapital sozialeko ekarpenaren bidez.

Inbertsioaren %70eraino, betiere mailegua gehienez 40.000€ eta 180.000€ bitartekoa izango delarik (7 urte eta 2 urteko gabezia, euriborra + %1,25, sustatzailearentzako bermerik gabe).

SPRIk ordainduko ditu formalizazio gastuak eta lehen 2 urteetako interesak.

Fondo galdurako diru-laguntza (minimis).



ESKAKIZUNAK

Partikularrak, talde sustatzaileak edo enpresa sortu berriak (urtebete baino gutxiago dutenak).

2 | EKINTZAIETZA

Basque Fondo - Ekintzaileak

EPEA:
2017ko urtarrila – 2017ko
abendua



HELBURUA

Enpresa-idea bati heltzen laguntzea Enpresa eta Berrikuntza Zentro batean. Enpresa berriak maileguak jaso ditzake baldintza onetan.



NORI ZUZENDUA

Ekintzaile programaren onuradun izan diren industriaren arloko edo industriarekin lotutako zerbitzuen arloko mikroenpresei eta ETEei.



LAGUNTZAREN AZALPENA

1. TARTEA:

Finantzaketa enpresa sortu eta berehala jasotzen da.

2. TARTEA:

Aurreragoko fase batean, hazteko potentziala duten enpresei ematen zaie finantzaketa. Hiru kategoriatan sailkatzen dira: potentzial handikoak, potentziala dutenak eta IKT proiektuak.



BALDINTZAK

- EKINTZAILE programako onuradun izatea.
- Gehienez 3 urte izatea eratu zenetik.
- Proiektu industrialak edo industriarekin lotutako zerbitzuetakoak, hazteko potentziala dutenak.
- Gutxieneko kapital soziala: 25.000 €.
- Gehienezko ekarpena: 100.000 €.

- EKINTZAILE programako onuradun izatea.
- Gehienez 5 urte izatea eratu zenetik.
- Proiektu industrialak edo industriarekin lotutako zerbitzuetakoak, hazteko potentziala dutenak.

	Funts propioak	Salmentak	Enpl.	Ekarpena
1. tarte	200.000	400.000	10	400.000
2. tarte	100.000	250.000	5	250.000



HELBURUA

Oinarri teknologiko edo berritzaileko ETEak sortu eta garatzeko laguntzak.



NORI ZUZENDUA

Jarduera hauetako bat egiten duten ETE industrialei: erauzketa edota eraldaketa, ekoizpena eta zerbitzu teknikoak, produktu-prozesuari eta aurrekoei lotutakoak.

LAGUNTZAREN
AZALPENA

Inbertsio berrientzako laguntzak kategoría hauetan: Jabetza industrialá eta patenteak, Aplikazio informatikoak, Lursail eta ondasun naturalak, Eraikinak, Instalazio teknikoak, Makineria, Tresneria, Informazio prozesuetarako ekipoak.

24 HILABETE + GABEALDIA + 5 ITZULERA



LAGUNTZA MOTA

Aurrerakin itzulgarriak, laguntza jaso dezakeen inbertsioaren %25 - %35erainokoak izan daitezkeenak:

- Gehienez 1.500.000 €.
- Gehienez ere 150.000 € sortutako enplegu bakoitzeko.
- Gehienez 100.000 € lanpostua mantentzen bada.

Oinarri teknologikoko enpresa txikiak: inbertsioaren %35eko aurrerakinak.

Soilik berritzaileak diren enpresa txikiak: inbertsioaren %30eko aurrerakinak.

Oinarri teknologikoko enpresa ertainak: inbertsioaren %30eko aurrerakinak.

Soilik berritzaileak diren enpresa ertainak: inbertsioaren %25eko aurrerakinak.



ESKAKIZUNAK

Proiektuko gutxieneko inbertsioa: 120.000 €.
INBERTSIO-PIZGARRIA



HELBURUA

Euskal enpresen kanpoko ezarpenak sortu eta garatzeko laguntzak.



NORI ZUZENDUA

Atzerrian produkzio fabrika bat ezartzen duten edota sozietate bat erosten duten ETEei.
BEHIN ENPRESAKO ETA HERRIALDEKO

LAGUNTZAREN
AZALPENA

Inbertsio berrientzako laguntzak kategoría hauetan: Jabetza industrialia eta patenteak, Aplikazio informatikoak, Lursail eta ondasun naturalak, Eraikinak, Instalazio teknikoak, Makineria, Tresneria, Informazio prozesuetarako ekipoak.
36 HILABETE + GABEALDIA + 5 ITZULERA



LAGUNTZA MOTA






Aurrerakin itzulgarriak, laguntza jaso dezakeen inbertsioaren %25 - %30erainokoak izan daitezkeenak:
- Gehienez 1.000.000 €.

Enpresa txikiak: inbertsioaren %30eko aurrerakinak.
Enpresa ertainak: inbertsioaren %25eko aurrerakinak.
INDUSTRIAL TEKNOLOGIKOA / INDUSTRIAL BERRITZAILEA / INDUSTRIALA



ESKAKIZUNAK

Proiektuko gutxieneko inbertsioa: 120.000 €.
ESKAERA EUSKO JAURLARITZAN AURKEZTU BEHAR DA
INBERTSIO-PIZGARRIA

-  **HELBURUA** Enpresak modernizatzeko eta laneko segurtasuna hobetzeko makineria industrialia erosteko laguntzak.
-  **NORI ZUZENDUA** Euskal ETE industrialei.
-  **LAGUNTZAREN AZALPENA** Kostuaren %15eko diru-laguntza, gehienez 70.000 € makina bakoitzeko eta 100.000 € enpresa bakoitzeko.
-  **LAGUNTZA MOTA** Fondo galdurako diru-laguntza (minimis).
-  **ESKAKIZUNAK**
- Makinaren gutxieneko zenbatekoa: 70.000 €.
 - Eskaera aurkeztean, atxikita aurkeztu behar dira makina erosteko kontratua eta gutxienez makinaren kostuaren %10 ordaindu izanaren bankuko agiria.
 - Makinak ordainduta egon behar du. Onartzen dira finantza errentamendua (erosteko aukerarekin) eta hornitzailearen finantzaketa, baldin eta hornitzaileak ziurtatzen badu onartzen duela bezeroaren ordainketa likidazioa, kobratuta ez badu ere.
 - Osalanek egiaztatuko du makina guztiek betetzen dituztela laneko segurtasun baldintzak.



HELBURUA

Euskal enpresentzako laguntza integrala, kanpo merkatuetara sar daitezen eta ezarpen prozesuak egin ditzaten SPRIren KANPO SAREAREN laguntzarekin.



NORI ZUZENDUA

HASIERA, SENDOTZE EDO EZARPEN faseetan dauden EAEko enpresei.



LAGUNTZAREN AZALPENA

SPRIren Kanpo Sarearen bidez. Jomuga merkatuen informazioa eta azterketa – Merkataritza arloko laguntza eta babesa: banatzaileak, agenteak, ordezkariak edota bezeroak bilatzea. Agendak prestatzea – Laguntza. Aldi bateko jarraipena egitea banatzaile, ordezkari, eta abarrei. (gehienez 6 hilabete) – Merkataritza eta produkzio ezarpenak egiteko babesa eta laguntza (tokiko bazkideak identifikatzea), Instalazio espezializatuak bilatzea, Orientazio juridikoa eta fiskala – Hornitzaileak identifikatzea. Erosketa eta hornikuntza prozesuak. Aldi baterako kokapena negozio zentroetan – Giza baliabideak bilatzea eta aurre-hautaketa egitea jomugan bertan – Atzerriko bankuetan kontu korrante korporatiboak irekitzeko laguntza.

Laguntza eta babesa ematea euskal enpresek nazioarteko garapen ekonomikoko proiektuetan parte har dezaten, ERAKUNDE BILATERALEn laguntzaz (BID, BM, FINDETER, CAF...).



LAGUNTZA MOTA

Euskal enpresentzako laguntza integrala, kanpo merkatuetara sar daitezen eta ezarpen prozesuak egin ditzaten SPRIren KANPO SAREAREN laguntzarekin.

Sozietate kudeatzaileak aldi baterako inbertsio minoritarioak egiten ditu Funtsen bitartez kotizazio ofizialik ez duten enpresa ez finantzarioetan. Hiru motatako funtsak kudeatzen ditu, proiektuaren sustatzailearen eta inbertsio-xedearen arabera:

Funts generalistak

Inbertsioak egiten dituzte enpresa **industrialetan** eta industriarekin lotutako zerbitzuak eskaintzen dituzten enpreetan

Hazteko potentzial handia duten **enpresa berritzaileetan**

Negozio / merkatu berrietan inbertitzeko edo halakoak garatzeko proiektuak dituzten enpreetan.

Ekintzailetza funtsak

Enpresa berritzaileetan

Informazio teknologien erabilpen intentsiboa egiten duten enpreetan

Bio-teknologiako enpreetan.

Lanpar funtsa

Funts honen helburua da langileek enpresako esparru guztietan parte har dezatela.

Enpresaren finantzaketa hobetzen du

Proiektuak sustatzen, mantentzen eta garatzen laguntzen du, kapitala, lana eta ezagutza uztartuz modu konprometitu batean

Kokaleku desberdinak enpresa bakoitzaren premien arabera, SPRI Taldeko Sozietateek kudeatuak.

SPRILUR	Lurzoru eta industrialde urbanizatuak proiektu industrialak ezartzeko eta kokatzeko.
TEKNOLOGI PARKEAK	<p>Teknologi Parkeen Sarea. Teknologikoki aurreratuak diren enpresak, ikerketa zentroak eta bestelako erakunde batzuk ostatatzen ditu eta I+G arloko erreferentziazko puntu bihurtzen ditu.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Arabako Teknologia Parkea • Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkea • Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkea
HAZTEGIAK – BIC zentroak	<p>Haztegiak oinarri teknologiko edota berritzaileko enpresa berrientzat (START-UPak):</p> <ul style="list-style-type: none"> • BIC ARABA (Araba) • BIC BIZKAIA EZKERRALDEA (Bizkaia) • BIC BIZKAIA (Bizkaia) • BIC GIPUZKOA (Gipuzkoa)



EUSKAL ENPRESA HEMEN DA

spri.eus 

Ayudas | Subvenciones | Formación | Jornadas



ENPRESA-GARAPENERAKO
EUSKAL AGENTZIA